



**Duela bi urte bezala, D ereduaren ikasleen %82,5 ari da ikasten; inoizko kopururik handiena / 5**

**Jon Irañeta bihar Irurtzunen jokatu den Nafarroako harri jasotze txapelketan lehiatuko da / 9**

**Joanes Bakaikoak Erik Jaka du aurkari etzi Buruz Buruko final zortzirenetan / 10**

**Folk Ametsetan hasiko da igandean Irurtzunen; goi mailako bi proposamenekin / 13**



**Elias Taño artista kanariarrak Altsasu Auziaren inguruko komikia argitaratu du / 14**

## SAKANA SARIA

Ingurumen, ekonomia edo eragin sozial positiboa izan duen erakunde edo ekimen kolektibo bati emanen dio Sakanako Sozioekonomia Behatokiak / 7

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Orri pasa izan genuen bulegoan Txuri Ollo Gorriti. GUAIXE hila-betekariak, OIXE astekariak eta GUAIXE astekariak. Guztien aleak pasa ziren bere eskutik. Datu basea eta argazki artxiboa ere kontsultatu zituen. Mikel Arregi Marinekin lotutako albiste eta irudien bila aritu zen. Baina ez gurean bakarrik. Etxean izanik, Ollo elkarrizketatzeko aukerarik ez genuen galdu.

#### Polizia indarkeriaren biktimen inguruko lanak aztertzen ari zara. Nolatan?

Nafarroako Gobernuak aurreko legegintzaldian beste biktimei buruzko ikerketak egiteko pausoak ematen hasi zen. Lera, Nafarroako Unibertsitate Publikoan zegoen antropologoen-ikerlarien taldetxo bat zen, eta ikergune horrek Nafarroako Gobernuari proiektu bat aurkeztu zion. Proiektua onartu zuen eta Nafarroako Gobernuak aukeratu zuen zein kasu ikertu. Hasteko ETArekin-edo zerikusirik ez duten biktimak dira. Errazago izanzen delako onartzea orokorrean halako biktima bazuen azalpena. Nafarroako Gobernuak lau kasu aukeratu zituen: Jose Luis Cano, German Rodriguez, Gladis del Estal eta Mikel Zabaltza. Joan den urtean horiek egin genituen.

#### Orain lanak segida du?

Hori ere ez dago guztiz bukatuta. Asmoa zen lau horiekin liburu bat ateratzea, baina gobernu aldaketa egon denez, pixka bat "stand by"-an gelditu da. Aurten lanari jarraipena eman diogu beste hiru kasurekin. Baina gure ikerlari taldeko zuzendaria edo buru zegoena jubilatuta zen eta unibertsitatetik bota gintuzten. Orain Lera Mugarik Gabeko Antropologoak elkarte gisa ari gara ikerketaren jarraipena egiten. Asmoa da lau kasu haiek gehi hiru haiek bildu eta Nafarroako Gobernuak noizbait argitaratuko dituela.

#### Zeintzuk dira hiru kasu berri horiek?

Mikel Arregi lakuntzarra, Jose Migel Etxeberrria, "Naparra", eta Anjel Berrueta. Arregirekin hasi



Txuri Ollo Gorriti antropologoa Guaixeren bulegoan Mikel Arregi Marini buruzko informazioa bilatzen.

# "Lan hauek indartu behar dute herri memoria hori"

TXURI OLLO GORRITI ANTROPOLOGOA

Beste biktimen inguruko Nafarroako Gobernuarendako lan baten harira, Ollok Mikel Arregi Marini buruzko informazioa bilatu zuen GUAIXEko artxiboetan

ginen, bukatuta dugu ikerketa. Eta gero beste biak.

#### Zergatik Mikel Arregi Marin zerrenda horretan?

Lehen esan bezala, ETArekin loturik ez zeuden biktimak errazagoak zirelako eta Nafarroako Gobernuak aukeratu ditu. Sakana ongi aski dakizue lakuntzarra kontrol batean hil zutela. Herri Batasunako zinegotzia zen. Baina ez zuten HBko zinegotzia zelako hil, kontrol batean edonor izan zitekeen. Hainbeste kontrol izan zitezkeen. Hainbeste kontrol izan zitezkeen garai haietan, hainbeste bortizkeria zegoen garai haietan, guardia civilek tirokatu zuten eta hil egin zen.

#### Polizia indarkeriaren biktimen inguruko lana. Halako ikerketa bat nola egiten da?

Gure lan honek hiru arlotan sakontzen du: familia, gizarte eta erakunde memoria, antropologiatik begiratuta. Beraz, lan oso zabala da. Gehien bat familia memoria azpimarratzen dugu, behar bada hori delako gutxien landu dena. Gizarte memoria hedabideetan dugu. Hori ere jasotzen dugu. Eta horretara etorri nintzen GUAIXE-ren bulegora. Arlo horren barruan azken 40 urteetako egunkariak begiratzen ditugu. Alderatu pixka bat informazioaren tratamendua, zein desberdintasun dauden batzuetatik bestera. Esaterako, Diario de Navarra ikusi edo Egin/Gara ikusi, oso desberdina da tratamendua. Egunkari asko-asko begiratu. Eta horien artean GUAIXE ere. Baina, horretaz aparte, harrapatzen dugun dokumentazio guztia hartzen dugu: dokumentalak, liburuak, bideoak, antzerkiak, abestiak, bertsoak... ahal den guztia. Antropologia ikerketa denez, memoriaren kultur tresnak ere begiratzen ditugu. Memoria hori mantentzeko, indartzeko, erabiltzen diren tresna horiek guztiak, esaterako: memoriarekin lotuta dauden tokiak (monolitoak jartzen diren tokiak, oroigarriak, plakak, kaleen izenak, plazak...), kartelak, pegatinak, manifestazioak, esaten diren gauzak, omenaldiak, zer egiten den omenaldietan...





Hori guztia pixka bat aztertzen dugu. Hori gizarte memorian agertzen da, baina familia memoriaren aldetik hori nola bizi den ikusi nahi dugu. Askotan gizarte eta familia memoriaren artean nolabaiteko talka dago. Bata bestea gabe zaila da. Nahiz eta biak beharrezkoak izan, bata eta bestearen artean batzuetan desberdintasunak egoten dira. Familia arloan asko sakontzen dugu. Familiarekin elkarrizketak egin, baita hurbileneko lagunekin ere. Hor ikusi memoria ofiziala eta herrikoiaren artean dauden desberdintasunak.

**Erakundeen memoria ere aipatu duzu.**

Hirugarren zatia da erakunde memoria, guretako zailena dena. Gaur egun, oraindik, erakundeek ez dutelako ematen informazioa. Edo ez dute uzten gure esku. Epaitegi edo polizia memoria ez dute askatzen. Orduan hedabideetan dagoena pixka bat ikusi. Nafarroako Gobernuaren lan bat denez, berak jotzen du erakunde horietara. Hala ere, foru administrazioarendako ere itxiak daude nahiko. Baina bertsio ofizialak egunkarietan daude. Batzuetan ematen dizkigute epaiak edo halakoak ere. Edo medikuntza-koak, osasun arloan egon diren agiriak hil direnean, edo autopisiak egiten direnean.

**Lehen aipatu duzu bertsio ofiziala: kontrol bat saltatu zuten eta Arregi metrailatuta hil egin zen. Gizartearen bertsioa da han ez zegoela**

**"FAMILIA, GIZARTE ETA ERAKUNDE MEMORIA ARLOTAN ARI GARA, ANTROPOLOGIATIK"**

**"INFORMAZIOA EMATEN EZ DUTELAKO, GURETAKO ZAILENA ERAKUNDE MEMORIA DA"**

**"ARREGIEN KASUAN BERTSIO OFIZIALARI BUELTA EMAN ZITZAION, EPAIKETA EGON ZEN"**



Mikel Arregi Marinen hileta segizioa udaletxe paretik pasatzen. UTZITAKOIA



Etxarri Aranatzek dago Jose Ramon Anda eskultoreak egindako oroigarria; urtero lore eskaintza egiten du familiak. ARTXIBOIA

**kontrolik. Talka hori hasieratik sumatuko zenuten, ezta?**

Bai, berehala. Hala ere, Mikel Arregi Marinen kasuan bertsio ofizialari, nolabait, buelta eman zitzaion. Nahiz eta beraiek, Guardia Civilak, bertsio hori mantendu epaiketa bat egon zen. Eta bi hilabeteko espetxe zigorra jarri zioten ustez tiroa bota zuenari. Bazeuden guardia civil gehiago. Besteak ere botako zituzten, baina bat pagaburutzat hartu zuten eta hari jarri zioten zigorra. Bai abokatuak bai familiak ere epaia positiboki bizi izan zuten momentu hartan, bertsio ofizialari buelta eman zitzaiolako. Epaietan onartu zuten ez zegoela kontrolik, beraien tiroekin hil zela. Baina beste kasu gehienetan ez dago halakorik. Gladis del Estalenean, esate baterako, epaiketa

egon zen, eta onartu zen. Baina gero agenteari domina eman zioten. Memoria horretan, azkenean, bertsio ofizial horren irudia gelditu zen. Arregirenean ez hainbeste. Baina ikusten ari garen gainontzeko kasuetan bertsio ofiziala hor dago, eta hori gelditzen da. Lan hauek indartu behar dute herri memoria hori.

**Mikel Arregi Marinen kasuan zer epe duzue?**

Ikerketari azken puntua ematea oso zaila da. Beti aurkitzen dituzu gauza gehiago eta gehiago. Edo handik eta hemendik etortzen zaizkizu jendearengandik gauzak, materialak... [Udaberriean ixtekoak ziren baina COVID-19aren agerraldiak hedabideen errepa-soa, esaterako, irailean ixtea ekarri zuen].

**Bakarren batek zerbait badu?**

Edozer gauza ongi etorria izaten da: argazki, karta, idatzi, abesti... Edo duten informazioa. Batzuetan gordetzen da, gure jendartean gauza asko isildu dira, bai familiak baita inguruak ere. Isiltasuna da kasu hauetan ikusten dugun beste adierazgarri bat. Jendeak nola isildu dituen jasotako torturak, edo jasotako hainbeste bortizkeria. Orain kanpora atera ahal badugu, ongi etorriak denak. Hitz egin eta gero jendea ongi gelditzen dela ikusten dugu. Kostatzen zaio hitz egitea, baina lan hauek balio dute, nolabait, terapiatxo bat hitz egiteko. Kanporatzerakoan, hitz egiterakoan, omenaldietan-eta, gauzak zabaltzerakoan, nolabait, sendatzen dira. Ez guztiz, justiziarik ez dagoelako oraindik. Hori da aldarri-

## Gertatutakoa

- **1979ko azaroaren 11ko gauean** Arregi eta beste lau lagun Ziorditik Lakuntzara zihoazen autoz. Etxarri Aranazko koartelera iristean tiroka hasi zitzaizkien guardia civilak eta Arregi larriki zauritu zuten. Ospitalera bidean hil egin zen. Guardia Civilak kontrolean ez gelditu eta aurrera egitea egotzi zien. Ikerketa bat ireki zen, Lakuntzako Udalak bultzatutako ikerketa batzordearen eta herritarren erantzun indartsuaren ondorioz, eta hainbat lekukok argitu zuten kontrolik ez zegoela une horretan.
- **1981n** epaiketa izan zen eta epaiak argi jaso zuen ez zegoela inolako kontrolik. Guardia civilei "arduragabekeria arina" egotzi zieten eta bi hilabeteko espetxe zigorra jaso zuten.

katzen dena oraindik: egia, justizia eta erreparazioa. Horretan gaude.

**Lan horiek horretarako egiten dira?**

Bai. Eta orain artekoekin egingandako balorazioa, orokorrean, oso ona izan da. Kasuren batean familiak ez du oraindik hitz egin, esaterako, Gladis del Estalen kasuan. Baina beste guztien balorazioa nahiko baikorra izan da.

**Lana bukatuta Nafarroako Gobernuari emanen diozue eta publikatzeko zain geldituko da.**

Hori espero dugu, aurtengo hiru kasu hauek bukatzerakoan, zazpi kasuekin publikatuko dela. Gobernuak beste kasu batzuekin jarraitzeko asmoa du, esaterako, Josu Zabala Salegi, "Basajaun", etxarriarra. Nik ez dakit gehiegi oraingoz. Ikerketa egiterakoan pila bat ikasten dut nik ere, gauza asko ateratzen direlako. Egonen dira beste kasu batzuk ere eta ez dakit itzarongo duten denak bildu arte. Nik uste hobe dela lehenbailehen argitaratzea. Guri asko balio izan digu lan honek, eta espero dugu besteei ere baliagarria egingen zaiela.



ASTEKOA

XABIER REPARAZ EXTRAMIANA

## Errealitate anitzak

Harrigarria da, sarritan, nola eragiten digun gutako bakoitzari bizi dugun egoera latz honek. Pertsona desberdinen errealitateak zein anitzak diren arazo berdin baten aurrean. Lehenetsun eta interesek gure ikuspegitik erakusten digute egunerokotasun korapilatsu hau. Badira gure artean, denetarikoa ikuspuntuak aukeran. Bakoitzak berean sinesten du eta besteak mespretxuz begiratzen ditu zeharka, barre txiki urduriak irteten zaizkion bitartean.

Mutur batetik hasteko, beldurrak hartutakoak aipatuko nituzke. Bizitza gelditu eta oskol barruan gorderik izurria igaro arte patxada ederrean, leizetako hartzak bailiran lo geratu direnak. Gainontzeok errotzat hartzen dituzte, kalean oinak jartzea ausartzen direlako. Bestetik, baditugu, arau zorrotzeneri punta atera eta hura saihesteko trebeak diren haiek. Hamarnaka, seinaka edota bakarka kaletik pipak jaten ere musukoak ekiditeko artista hutsak direnak. Badira ere, honen gainera sentitzen direnak. Beraiekin birusa ez doala uste duten haiek. Arau eta aginduak belarri batetik sartu eta bestetik irteten zaizkienak. Trump beraren immunitatea berengan sentitzen duten iluminatuak. Iluminatuak aipatuta, birusa badenik ere ezeztatzen duten negazionistak ere badira. Begi aurrean dutena ikusi ezinik

konspiranoiak jota, mundu paraleloetara ihes egitea erabaki duten bakar batzuk.

Tokatu zaiguna tokatuta, bakoitzak aukera dezala bere bidea. Gertutik sentitzea ez da urrunean aditzea. Bakoitzak bere ikuspegia aldatzen du bizi duenaren arabera. Halaber, egoera honek asko irakasten digu bizitzaz. Gure burbuilatik atera arazten gaitu, errealitate anitz hau begietara begiratzera behartzeraino, bakoitzaren estrategiak azalaraziz estres egoera honen aurrean.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). **GUAIXEK** eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

## HARA ZER DIEN

### Beste erresidentzia eredu bat

#### SASOIA JUBILATUEN ELKARTEA

Pandemiaren berrindartze honek lehenengo txandan utzi zituen zauriak ireki ditu. Gogoan dugu denok pandemiak adinekoengan izan zuen eragina: gaixotasuna, bakardadea, heriotza... Horregatik, berriz ere, zahar etxeetara begira jarri gara. Lehenengo aldian agerian gelditu ziren gabezia eta hutsuneak zuzendu eta konpondu gabe harrapatu gaitu, ez zaio inori erantzukizunik eskatu, agintariak, bigarren itzuli hau aurreikusitako arren, zentro hauei ez dizkie eman erabiltzaileen osasuna bermatzeko behar diren baliabide materialak eta langile kopuruak. Eta utzikeria honekin kaltetuak berriz ere adinduok gara.

Eta konponbide errazena aukeratu dute orain ere, INPOSAKETA. Giltzapetu, kalera ateratzera debekatu, familia eta lagunekin beharrezkoak dituzten harremanak eten, bere askatasuna eta eskubideak murriztu... Lehenengo txandan egon ziren egoera eta bizipen gordinetatik badirudi ez dutela ondorioz atera, ez dutela ikasi. Aldaketa nabarmenik ez dago.

Baina bada gauzak aldatu nahi dituenik. Aurrekoan zahar etxeetan gertatutakoak betirako minduta utzi zituenak mugitzen hasi dira, eta zahar etxeen erabiltzaileei, berriz ere, jarri nahi zaizkien debeku eta eskubide murrizketak onartzen ez dituztenek elkarte

bat sortu dute, "Zaindus-Cuidando", zahar egoitzetako erabiltzaileen duintasuna eta eskubideak defendatzeko asmoarekin.

Larunbatean, urriaren 31an, egin zuten lehenengo ekitaldia eta bertan parte hartu genuen guztiontzat, pozgarria izan zen. Hunkigarria ekitaldiaren hasiera, aurrez aurre genituen Iruñeko Miserikordia zahar etxean bizi diren senitartekoak; maitasuna eta amorrua azaleratu ziren bat-batean eta garbia izan zen Nafarroako Gobernuari helarazi genion mezua Iruñeko kaleak zeharkatu ondoren: adinekoendako beste erresidentzia eredu bat, arreta duin eta publikoa bermatzen duen eredu.



### DUELA 25 URTE...



### 27 mutil Uharte Arakilgo pilota eskolan

Uharte Arakilgo pilota eskola 1982an sortu zen, herrian oraindik frontoi estalirik ez zegoen garaian. 1995ean 6 eta 13 urte bitarteko 27 mutil zeuden pilotan trebatzen, batzuk Sakanako beste herrietakoak ziren. Ibarreko txapelketa antolatzeke arduraz aparte, Errioxako txapelketa batera gonbidatu zuten eskola. Gainera, Espainiako Kluben Arteko Txapelketan Ohorezko Mailan ari ziren pilotariak. Tomas Navarro eta Jose Gorriti ziren pilota eskolako arima.

# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

#### Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

#### GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika  
info@gkomunikazioa.eus  
Ainhoa Etxeberria Pikabea  
gk@gkomunikazioa.eus

#### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

#### Zuzentzailea:

Miren Alonso Razkin

#### Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

# Mank

s a k a n a

## BAZKIDEAK



#### Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

#### Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
kultura@guaixe.eus

#### Maketatzailea:

Irene Trece Obeso  
maketazioa@guaixe.eus

#### Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

#### ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107 (Faxa)  
618 882 675



Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra





Altsasu BHI ikastetxeko ikasleak ikasturte hasieran. ARTXIBOA

## D eredia duela bi urteko maila berera pasa da

2.841 ikasleetatik (23 gutxiago) %82,5 D ereduan ikasten ari da. Gora egin duen hizkuntza eredu bakarra

### SAKANA

Hezkuntzako eta soziolinguistikako adituek diotenez, euskarazko eredia da hizkuntza ikastea bermatzen duena. Ikastetxetako matrikulazio datuak jasota, Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak urtero ibarreko hizkuntza ereduaren bilakaera aztertzen du. Ikasturte honetan euskarazko eredia, D, da bilakaera positiboa duen bakarra. 2019/2020ko jaitsiera berdindu eta 0,8 egin du gora, matrikulazioen %82,5 hartuz. Duela bi ikasturte lortu zuen kopuru bera da eta D ereduak Sakanan sekula izan duen matrikulazio portzentaje handiena da. Gaztelania nagusi eta euskara ikasgaia duen A ereduan ikasleen %13,8 ari dira ikasten, aurreko ikasturtean baino 0,4 gutxiago. Eta, azkenik, ikasgai gehienak euskaraz, batzuk gaztelaniaz diren Bereduan ibarreko ikasleen %3,70 daude, aurreko ikasturtearekin 0,4ko jaitsierarekin.

### Zikloka

**Haur Hezkuntzan** aurreko ikasturtean baino lau ikasle gehiago ari dira ikasten, 588. Haietatik %86,4 (508, bi ikasle gehiago) euskarazko ereduan ikasten ari dira. Aurreko ikasturtearekin alderatuta D ereduak 0,2 puntu egin du behera. A ereduak %10eko matrikulazioa du, 59 ikasle (0,4 eta 3 ikasle gehiago). Azken bi urteetan A ereduak 2 puntu egin du gora. Azkenik, B ereduan %3,6 ikasle matrikulatu dituzte, 21 (0,2 puntu eta ikasle bat gutxia-

go). Azken bi urteetan B ereduak 1,5 puntu galdu ditu.

**Lehen Hezkuntzan** 1.432 ikasle daude izena emanda, aurreko ikasturtean baino 28 gutxiago. Euskarazko ereduak aurreko ikasturteko beherako joerarekin hautsi eta 0,4 puntu egin du gora, nahiz eta 18 ikasle gutxiago izan, 1.165 ikasle. LHn matrikulatuak %81,4 ari da D ereduan ikasten, baina duela bi ikasturte baino 0,9 puntu gutxiago. A ereduan ikasleen %12,7 daude, 182, (0,2 puntu gehiago eta ikasle kopuru bera). B ereduan hiru ikasturtez matrikula gora egin ondoren, ikasturte honetan behera egin du matrikulazioak eta %5,9koa da (0,6 eta 10 ikasle gutxiago).

**Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan** 821 ikasle ari dira ikasten, aurreko ikasturtean baino bat gehiago. Haietatik %81,7 D ereduan ikasten ari dira. datuak biltzen direnetik aurreneko aldiz euskaraz ikasten ari diren DBHko ikasleak %80 kopurua gainditu dute. D ereduan 671 ikasle ari dira ikasten (2,2 puntu eta 19 ikasle gehiago). A ereduan ikasleen %18,3 daude, 150 (2,2 puntu gutxiago eta 18 ikasle gutxiago).

Hiru hezkuntza zikloetan guztira 2.841 ikasle ari dira ikasten, aurreko kurtsuan baino 23 gutxiago. D ereduan %82,5 ari dira, 2.344 (3 ikasle gehiago eta 0,8 gehiago). A ereduan ikasleen %13,8 ari dira ikasten, 391 (0,4 puntu gutxiago eta 15 gutxiago). Azkenik, B ereduan ikasleen %3,7 daude, 106 (% 0,4 eta 11 ikasle gutxiago).

## Elurra kentzeko prest

Neguko kanpainako errepideen kontserbazioa zainduko duen dispositiboa prest du Nafarroako Gobernuak. Igandetik apirilaren 30era arte martxan izanen dira hainbat baliabide. Foru administrazioak jakinarazi duenez, errepideak kontserbatzeko Irurtzongo bi guneetan 37 langile eta elurra kentzeko 28 makina ariko dira lanean.



ARTXIBOA

## EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA

*Haiengatik, guztiongatik*

### AZAROAK 14-15

#### Berdintasunaren aldeko escape room-a Olaztin

Sufragio unibertsalaren aldeko borroka, soldata arrakala, sare sozialak eta emakumeen aurkako indarkeria bezalako kontzeptuak landuko dira Escape room honetan. 1923ko maisu-maistren kontratua edo emazte onaren dekalogo bezalako testuak eta garai horretako giroa dira parte hartzaileek deszifratu behar dituzten kodeen oinarria etorkizunera iritsi ahal izateko. Izen ematea taldeka egin behar da eta parte hartzeko txanda emango zaizue. [berdintasuna@sakana-mank.eus](mailto:berdintasuna@sakana-mank.eus)

18:00etan Uharte Arakil **AZAROAK 21**

"Despiertas"dokumentala

**AZAROAK 22** 19:00etan Irurtzongo Kultur etxean

#### ERRADIKALAK GINEN bertso-antzerki ikuskizuna

Ane Labaka (bertsolaria) eta Beatriz Egizabal (antzerkilaria)  
Gonbidapenak: [berdintasuna@sakana-mank.eus](mailto:berdintasuna@sakana-mank.eus)

19:00etan Altsasuko lortia Kultur gunean **AZAROAK 24**

"Él nunca me pegó" dokumentala eta solasaldia

Irantzu Varela

Indarkeria psikologikoari buruzko dokumentala eta eztabaida amodio erromantikoaren esparruan. Sakanako bi Berdintasun Zerbitzuek antolatuta. Bertaraterik ez bada, Zoom bidez jarraitzeko aukera.

**AZAROAK 25**

#### Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna

- Goizean Sakanako ikastetxeen topaketa birtuala.  
- Elkarretaratzeak Sakanako herrietan

19:00etan Uharte Arakilen **AZAROAK 27**

Sorgin ehiza eta emakume gaiztoaren mitoa deseraitkitzen.

Amaia Nausia

Bertaraterik ez bada, Zoom bidez jarraitzeko aukera.

Ekitaldi guztietan aforo mugatua.  
Izen ematea [berdintasuna@sakana-mank.eus](mailto:berdintasuna@sakana-mank.eus).  
Osasun neurri guztiak bermatuko dira

**Mank**  
s a k a n a  
SAKANAKO MANKOMUNITATEKO  
BERDINTASUN ZERBITZUA

# Hezkidetzatik berdintasunerako bidean

Pausoak emateko hiru ikastaro antolatu dituzte: ipuin parekideak (azaroaren 10ean eta 17an) eta Sexualitateak 3.0 (abenduaren 16an eta 17an). Izena emateko berdintasuna@sakana-mank.eus e-postara idatzi behar da

## SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuak "Hezkidetzan hezi, berdintasunean bizi" zikloa antolatu du, hezkidetzaren bidez gizartearen balioak aldatzen joateko. Familia eta bidelagunei zuzendutako ikastaro eskaintza da. Zikloari ipuin parekideak ikastaroak emanen dio hasiera. Hartan ipuin sexistak zeintzuk diren jakiteko gakoak emanen dira. Baita ipuin parekideak bereizteko ere. "Eskura ditugun baliabideen azalpena egingen da ipuin sexistak eta parekideak baloratzeko". Ikastaroa Ilazki Gainza eta Nerea Uria Kalaka kooperatibako kideek emanen dute, euskaraz. Sakanako Mankomunitatearen Lakuntzako egoitzan izanen da, azaroaren 10ean eta 17an (astearteak), 17:00etatik 19:00etara.

## Pornografiaz

Haur eta gazteen pornografia kontsumoa gero eta handiagoa da. Eta horren aurrean gurasoek eta hezitzaileek zer egin dezaketen galdetzen dute. Erantzunak ematen saiatzeko bi ikastaro antolatu ditu Berdintasun Zerbitzuak. Aurrenekoa Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzako guraso eta hezitzaileei zuzendutakoa da. Zoom plataformaren bidez izanen den saioan honako galderak erantzuten saiatuko dira: nire seme-alabak pornoa ikusten al du? Nola hitz egin gaiaren inguruan? Zein jarrera hartu? Zein baliabide eta estrategia erabili ditzaket? Gure seme-alabek gero eta goizago dute interneterako sarbidea, eta horrekin batera, gure kontrolatik kanpo dauden eduki mordoak dute eskura, tarteen pornografia.

Mank-etik azaldu dutenez, "pornografia geure seme-alaben sexu hezitzailea izatea nahi ez badugu, bere eraginari aurre egiteko estrategia eta baliabide eraginkorrak partekatu behar-



Lanbide Heziketan Nafarroako Gobernuaren hezkidetzari sariak egiten. ARTXIBOA

## HELBURUA DA HEZKIDETZAREN BIDEZ GIZARTEAREN BALIOAK ALDATZEN JOATEA

ko ditugu. Sinesgarriak diren mezuak helaraztea beharrezkoa dugu, baita gure jarrera modu koherentean jakinarazi ere". Gaiaz "konfiantzaz eta segurtasunez" aritzeko prestatu du Nerea Sancho Esnaola Arremantzit Kooperatibako kidarekin saioa. Abenduaren 16an, asteazkenean, 17:00etatik 19:00etara. Aldez aurretik galderak bidaltzeko aukera izanen dute parte hartzaileak.

DBH eta Batxilergo ikasleek ere pornografia kontsumitzen dute. Haren kontrabaliorei aurre egiteko babes neurriak eta trebetasunak lantzeko online ikastaro ere antolatu du Mank-ek. Aurreko saioko gidari berarekin landuko diren puntuak dira: sexu hezkuntza, pornografia eta erotismo kontzeptuak; mass-mediaren sexu hezkuntza ereduak: erromantikotik pornografikora; tek-

nologia berrien eta sare sozialen kudeaketa; pornografia motak eta kontrabaliok eta eredu pornografikoari aurre egiteko babes neurriak eta trebetasunak. Ikastaro hori abenduaren 17an, ostegunean, izanen da, 17:00etatik 19:00etara. Horretan ere aldez aurretik galderak bidaltzeko aukera izanen da.

## Azaroak 25

Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako eguna dela eta Berdintasun Zerbitzuak programazioa prestatu du. Horren barruan dago Olatzagutian egingen den scape room-a. Azaroaren 14an eta 15ean izanen da, 10:30etik 15:00etara. Taldeen ordutegia honakoa izanen da: 10:30, 12:00 eta 13:30. Scape room-ean parte hartzeko aldez aurretik izena eman behar da [berdintasuna@sakana-mank.eus](mailto:berdintasuna@sakana-mank.eus) e-postan.

Gelan sartzen direnak honako egoerarekin egingen dute topo: etxeko zaindariak bere hildako jabeen etxea aurkeztuko du. Emaztea emakumeen eskubideen aldeko aktibista sutua eta Clara Campoamorren jarraitzailea eta sufragio unibertsalaren aldeko borrokan parte hartu zuen.



Mila Koloreko ordezkari Virginia Ruiz de Eginok Altsasuko saria jaso zuen. UTZITAKOA

## Mila Kolorerendako Nafarroako Gozamenek film laburren saria

Altsasuko lehiaketan irabazi ondoren, Nafarroako helduen mailako saria eskuratu du

## ALTSASU

Film laburrak eginez gozatu eta, aldi berean, sexualitatearen inguruan hausnartzeko asmoz antolatzen da Gozamenek film laburren lehiaketa. Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzuak antolatutako lehiaketan Mila Kolore taldearen *Contemple tanto* lanak helduen mailako saria eskuratu zuen. eta gauza bera gertatu da 7. Nafarroako Gozamenek film laburren lehiaketan. Lastailaren 29an egindako sari banaketan Mila Kolorek eskuratu zuen "Goza" saria.

Birritan saritutako lana Gazteria Zerbitzuaren Gu Geu Gazte programaren baitan egin zen, Elur Olabidek zuzenduta. Film laburrean Aimar Bengoetxeak, David Quejerok, Edurne Goikoe-txeak, Isaac Samaneseak, Lizar Aldarergiak eta Oier Galartzak parte hartu zuten. Ikus-entzunezkoa Constantino Cavafis poe-

ta greziarraren poema erotiko batean oinarritzen da. Filmaren sinopsiaren arabera, "erotismoak eta sentsualitateak ez dute inor zertan beldurtu, euren moralitatearen gatibu daudenak salbu". Gaineratu dutenez, "desira eta zentzumenetara eramaten gaitu taldeak bere begirada eta gorputzen bidez".

## Udazkenean

Gozamenek programa sexualitate modu zabalean ulertzen du, "finean, plazera eta sexualitatea gurekin egunero egiten dugun guztian daramagun zerbait bezala ulertzen dugu". Altsasun gazteei zuzendutako egitaraua prestatu dute azarorako. Hark abiaraziko du "Busti aniztasunez, bizi gozamenek" film laburren emanaldia eta ondorengo foruma. Intxostiapunta gazte gunean izanen da, heldu den ostiralean, 18:00etan.

## Intxostiapuntak berriemaile berriak ditu

Altsasuko gazte gunearen berri ikastetxetara eramateaz arduratuko dira: Jonathan Laura eta Mara Martis (Sakana Lanbide Heziketa institutua), Aitziber Da Costa Taboada eta Cristina Matias Tapia (Altsasu Bigarren Hezkuntzako Institutua), Eneko Andueza (Iñigo Aritza ikastola) eta Cristian Juarez Melchor (Sagrado Corazon ikastetxea).



Berriemaileetako batzuk. UTZITAKOA



# Sakana Saria, ekimenei aitortza egiteko sortua

Ibarrean ingurumen, ekonomia edo gizarte eragin positiboa izan duen erakunde edo ekimen kolektibo bati emanen zaio. Sakanako Sozioekonomia Behatokiak sustatu du eta urtero banatzeko asmoa azaldu du

## SAKANA

Ibarreko hainbat eragileen arteko elkarrizketetan askotan agertu den gaia da Sakana marka eta eskualdea bera. Hartu-eman horietan eragileek "Sakana bizi, elkartu eta anitza zerumuga desiragarri bezala" ikusten dute. Eta sakandarrek partekatzen ditugun balio batzuk ere zerrendatu dituzte. Batetik, dinamismoa eta erresilientzia gaitasuna oraingo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko. Bestetik, aniztasuna aberastasun kolektibo gisa ikusten dela. Eta, azkenik, elkartasuna eta onura komuna bilatzea komunitatearen beharrak lehenetsiz. "Horretarako funtsezko elementuak dira komunitatearen lana (auzolana) eta herri ondasunak (komunala)".

Sakana Sariak antolatuz eta deituz, Sakanako Sozioekonomia Behatokiak aitortza egin nahi dio ibarrean gizarte, ingurumeneko edo ekonomiko eragin positiboa izan duen erakunde edo ekimen kolektibo bati, irabazi asmoa izan edo ez. Saria ematerakoan aipatutako hiru balioak izanen dituzte kontuan.

## Sorrerako baldintza

COVID-19ak sariketaren antolazailen asmoak aldarazi ditu. Izan ere, "Sakana Sariak ospaki-



Sakanako Sozioekonomia Behatokiak Dinabiden egindako bilera. ARTXIBOA

zun moduan eta herritarren parte hartzearekin planteatzen genuen, baina egungo egoera ikusita, aurten, egoerari lotutako hastapen sari baten moduan egitea beste aukerarik ez dugu ikusten. Aitortza, Sakanarekin lotura duen sinbolo baten bidez gauzatuko da".

Baina Behatokiaren etorkizuneko asmoa litzateke, "sariaren izpiritu komunitarioa errespetatu asmoz, etorkizunean saritutako ekimenei hautaketa modu parte hartzaileagoan egiteko konpromisoa hartu dugu".

## Prozesua

Behatoki kide diren eragileek hilaren 18ra arteko epea dute beraien proposamenak info@sakanagaratzen.com helbidera bidaltzeko. Mezuan ekimenaren izenaz aparte, honakoak ere bidali beharko dituzte: haren sustatzaileen izen-abizenak eta kontaktua, ekimenaren azalpena eta proposamenaren zergatia. Behatoki kideen ordezkaritza batek osatutako epaimahaiak jasotako proposamenen artean bat aukeratuko du. Sari banaketa azaroaren 26an egingen da.



Zebrabideak kontzeju etxea eta Batasunaren Iturria plaza lotzen ditu.

## Kontzejuak zebrabide goratua jarri du herri erdian

Ibilgailuak abiadura handian pasatzen zirelako jarri du. 10.000 euroko inbertsioa egin du kontzejuak

## IHABAR

Ihabar zeharkatzekoan ibilgailu guztiak abiadura handian pasatzen ziren herritik. Eta sustoren bat baino ezer larriagorik pasa aurretik Ihabarko Kontzejuak erabaki du ibilgailuen abiadura horri muga jartzea. Horretarako, kontzeju etxearen atearen paretik Batasunaren Iturria plazara doan zebrabide goratua jarri du. Lanak duela hilabete egin ziren eta dagoeneko ihabardarrek sumatu dute alde.

Oinezkoen segurtasuna bermatzeko eta ibilgailuen abiadura mugatzeko beste bi zebrabide goratu daude Ihabarren 2011tik. Bata Kale Nagusian dago, Hiri-berri aldera eta bestea San Juan kalean, trenbide azpiko zubitik 80 bat metrora. Azken horrek autobiatik edo dermiotik herri-ara sartzen diren ibilgailuen abiadura mugatzea du helburu. Irañeta aldera ere bada zebrabide bat.

Ibilgailuek herrian hartzen duten abiadurarekin aspaldi daude kezkatuta ihabardarrak. Mende hasieran Ihabarko Kontzejuak bere kabuz herri sarretan abiadura moteltzeko porlanezko hiruna lerro jarri zituen. Baina araudia betetzen ez zutela eta Nafarroako Gobernuak haiek kendu arazi zituen 2003an. Hurrengo urtean, kontzejuak gobernuari eskatu zion zebrabide goratuak jartzeko.

Ihabarko Kontzejuaren aurtengo inbertsio handiena da zebrabide goratua jartzea. Horrekin batera, baso itxiturak berriro ditu. 2019an, berriz, abeltzaintza azpiegituren hobekuntza lanak egin zituen. Batetik, Asa, hilerrria eta herri lurretarako sarbide nagusia diren bideak hobetu zituzten porlanezko zorua jarritz. Bestetik, Ilarrazuko herri larreetan azien-darendako aska jarri zuen.



Eskerrik asho!

Amaya

OGITEGIA

1964 - GEROZIK

Ondarria Poligona Pab.6 / 31800 ALTSASU / Nafarroa

GASTEIZKO MINIATURE PINTXOS CONGRESS  
2020KO TRADIZIOZKO PINTXO TXAPELKETAKO  
BABESLE OFIZIALA

OSO POZIK GAUDE, ARABAKO, BIZKAIKO, NAFARROAKO ETA GIPUZKOAKO  
HOSTALARITZAK GURE PRODUKTUEKIKO IZAN DUEN HARRERAGATIK.

Amaya Ogitegia, gaur egun inoiz baino gehiago hostalaritza laguntzen.







Auzolanean aurrera egiten duen ekimena da Errigora. WWW.ERRIGORA.EUS

## Errigora, Nafarroa hegoaldeko euskalgintza indartzeko

Azaroaren 12ra arte eska daitezke Nafarroako hegoaldeko produktuz osatutako saskiak

SAKANA

Nafarroan euskara ofiziala ez den eskualdean eragin nahi du Errigorak. Horretarako, eremu horretakoak propio diren elikagaiak Euskal Herrian bidea ematen die. 2013tik udazkeneko *Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka* kanpainaren bidez egiten du hori. Gaur egun Errigorak hiru saski mota eskaintzen ditu, ohiko tokietan edo *www.errigora.eus* webgunearen bidez eska daitezkeenak.

Errigoratik adierazi dutenez, "aurten elkartasuna biderkatu nahi dugu. Pandemiak eragindako nahas-mahasa dela eta, ikastolen jaialdiak eta Sortzenen jaia ezin izan dira egin eta Korrikarik ez dugu izanen datorren udaberrian. Egoera horren aurrean ardura hartu nahi izan dugu eta, beraz, saski bakoitzeko 5 euroko ekarpen gehigarria eskatuko dizugu". Errigorako

kideek esan dutenez, "euskara plazan nahi baduzu kanpaina honetan parte hartzeko gonbita egiten dizugu".

Horregatik, saski beltza 55 eurotan salduko da eta erosleak, saskiaz aparte, Korrikaren katilua jasoko du. "Horrela AEKri diru hori zuzenean bideratzeko, Korrika ez egiteak eragingo dion diru galera arintzen laguntzeko". Saski berdeagatik 65 euro ordainduko dira saskiarekin batera Seaskaren egutegia jasoko du erosleak. "Seaskari diru hori zuzenean bideratuko zaio, Herri Urrats ez egiteak eragin dion diru galera arintzen laguntzeko". Azkenik, saski txuriaren truke 75 euro ordaindu beharko dira eta harekin batera D ereduaren haziak jasoko ditu erosleak; "Sortzen diru hori zuzenean emanen zaio, urteroko jaia ez egiteak eragin dion diru galera arintzen laguntzeko".

## Euskaraldiko txapa banaketa hasiko da

Osasun egoera ikusita, Euskaraldia batzordeek txapa banaketa aurreratzea erabaki dute

SAKANA

Txapak banatzearekin batera Euskaraldian parte hartu nahi dutenek izena emateko aukera izanen dute ere. **Etxarri Aranzko** batzordeak larunbatean 12:30etik 13:30era jarriko du mahaia plazan. Eta igandean, 12:30etik 14:00etara. Gainera, azaroaren 15ean, igandean ere aukera izanen da Etxarrin izena eman edota txapa jasotzeko, 12:30etik 14:00etara. Data horietan izena eman ezin edota txapa jaso ezin dutenek azaroaren 17an eta 18an aukera izanen dute udaletzeko 2. solairutik pasa eta txapak jasotzeko, 11:30etik 13:00etara eta 18:00etatik 19:30era.

**Bakaikun** Xabier Artiedaren *Txor-txor* bakarrizketa umoretsuaren emanaldia izanen da igandean. 18:00etan izanen da, elizan. Bitartean Euskaraldian izena emateko aukera izanen dute bakaikuarrek ere.

**Altsasun** hurrengo bi igandetan Gure Etxea eraikineko beheko solairuan izanen dira 13:00etatik 14:30era. Izena eman edota txapak jaso nahi dutenek handik pasa beharko dira. Gainera, Sakanako batzorde guztiek etxeetan jartzeko Euskaraldiko banderolak salgai dituzte bost eurotan.



Presoen askatasuna aldarrikatzen.

## Jonan eta Julen lanera ateratzeko baimenik gabe

Altsasuko auziagatik kartzelan preso segitzen duten bakarrak Jonan eta Julen dira. Bigarren graduan daude. Espetxeen Erregelamenduko 100.2 artikulua presoekin salbuespeneko neurriak hartzeko aukera ematen die kartzeletako Tratamendu Batzordeei. Zaballakoak oniritzia eman zien Jonanek eta Julenek kalean lan egiteko aurkeztu zituzten eskaerei, lan eskaintza bana baitute. Baina kalera lanera ateratzeko aukera hori atzera bota zuen Espainiako Espetxe Zaintzako Idazkaritza Nagusiak lastailaren 21ean.

Jonanek eta Julenek 920 egun egin dituzte gaur preso. COVID-19 gaitza kartzeletan ez sartzeko Espainiako Gobernuak haiek ixtea erabaki zuen. Orduetik biek astean 30 minutuko bi senide edo lagun bista besterik ez dute. Bisean biseko bisitak kendu dituzte. Asteko 10 telefono dei dituzte. Baimenarekin egun batzuetarako kalera ateratzen bada, bueltan hamar egun bakar-tuta egon behar dute kartzelan.

## Iñaki Bilbao presoari babes adierazpenak kalean

Etxarriko plazan 19:15ean eta Altsasuko udaletxe parean 20:00etan egunero kontzentrazioak

SAKANA

Iñaki Bilbao Goikoetxea, Txikito, Puerto de Santa Mariako Puerto III kartzelan dago preso. Bilboak gose eta egarri greba mugagabea hasi zuen astelehenen. Baina aurreko ostiralean 50 eguneko gose eta komunikazio greba despeditu zuen. Oraingoan senide eta gertuekiko komunikazioa ahal duen heinean mantenduko duela jakinarazi du Bilboak. Presoak iragarri duenez, "Euskal Herria Independente, Sozialista, batua eta euskalduna" lortzea da bere aldarrikapena. Bilboak aldarrikapen berarekin 2017ko maiatz-ekainean hilabetez egin zuen beste gose greba bat. Lezamako presoak 65 urte dauka eta haietatik 36 kartzelan daramatza.

Bilbaoren aurreko grebarekin Amnistiaren aldeko eta Errepresioaren kontrako Mugimenduak (AEM) deituta Etxarri Aranatz hainbat kontzentrazio egin ziren, baita elkartasun baraualdia ere. AEMk jakinarazi duenez, presoari elkartasuna azaltzen segituko du, baita "bere helburu politikoekin bat egiten dugula berretsi" ere. Horregatik, egunero kontzentrazioak deituta daude Etxarri Aranatz eta Altsasun.


**PORTUKO**  
30 URTE  
Ogia egiten

**TXARTEL TX 20 urteurrena**  
[www.txartel.net](http://www.txartel.net)  
948 564 002  
[txartel@txartel.net](mailto:txartel@txartel.net)

BEROKUNTZA - NEKAZARITZA - AUTOMOZIOA  
**Lakuntza**  
Etzera eramateko gasoleoa  
Alberto Iriarte  
948 576 016 - 609 421 680

**GUAIXE**  
618 882 675





Jon Irañeta Irurtzugo azokan egindako erakustaldi batean, bolarekin. Bola eta kuboia ditu harri gustukoena. UTZITAKOIA

# "Sakanako eskola ez bagenu, ez nintzateke harri jasotzailea izanen"

**JON IRAÑETA** HARRI JASOTZAILEA

**HARRI JASOTZEA** 2019an Nafarroako Txapelketa irabazi zuen egjarretarrak, eta larunbatean txapela defendatuko du Irurtzunen atek itxita jokatuko den finalean

**Maidar Betelu Ganboa** EGIARRETA

Azken orduko aldaketarik ezean, larunbatean, azaroak 7, Nafarroako Harri jasotze Txapelketa eta Nafarroako Txinga-Erute Txapelketa jokatuko dira Irurtzugo pilotalekuan, 18:00etan. Osasun neurriak direla eta, ez da publikoa egonen. Jon Irañeta egjarretarra da egungo txapelduna, eta txapela defendatuko du.

**Nola eragin du pandemiak harri jasotzaileen ohiko prestakuntzan?** Uste dut orohar guztiek pixka bat okerrera egin dugula. Urte

zaila izan da. Sanferminetako herri kirol txapelketak bertan behera geratuko zirela jakiterakoan entrenamendu maila jaitusi genuen, eta ez dira festetako erakustaldiak egon. Orain txapelketarako maila hartu dugu, baina

**"FINALERAKO SENTSazio ONAK DITUT, BAINA LANA EGIN ARTE EZ DAKIZU ZER GERTATUKO DEN"**

ez dut uste aurreko denboraldia-ekin alderatuta jasoko ditugun pisu zenbakietan diferentzia askorik egongo denik; baldin badaude, beherantz izango dira. **Udako festetako plazak ez dira soilik erakustaldi hutsak, txapelketa ukitua badute.**

Bai, zure burua probatzen duzu. Entrenamenduan ateratzen dituzun zenbakiak eta plazan ateratzen dituzunak ezberdinak dira. Askok nabaritzen da. **Entrenamenduko gelan plazan baino zenbaki hobek egiten al dituzue?**

Ez beti, plazan motibatu egiten zarelako. Jendearen aurrean zure burua gehiago estutzen duzu. Baina plazan oso erraza da zerbait gaizki ateratzea, esaterako, harri bat gaizki botatzea. Horrekin 15 edo 20 segundo galdu ahal dituzu eta guztia asko alda daiteke. Dena den, larunbateko Nafarroako Harri jasotze Txapelketa atek itxita jokatuko da, eta, orduan, ez dakit. Arraroa izango da frontoia hutsik egotea, tristea.

**Nerabe zinela hasi zinen Sakanako Harri jasotze Eskolan trebatzen, Mikel Lasarterekin.**

Harri jasotzeak ez ninduen beziki erakartzen, baina 15 edo 16 urte nituela Sakanako Harri jasotze Eskolan probatu nuen, gustura aritu nintzen eta horrela hasi nintzen. Gero eta gehiago altxatzeak harrapatzen zaitu.

**Zer dohain behar dira harri jasotzaile izateko?**

Saso pixka bat izatea, baina ez jendeak uste duen sasoi hori; hau da, ez duzu sekulako tipo indartsua izan behar. Indarra baino, teknika da garrantzitsua. Horretaz gain, erresistentzia lantzeko mendian ibili behar da, malgutasuna landu... kirol osoa da. Eta, batez ere, burugorria izan behar da.

**Mikel Lasartek esaten du zuena oso kirol sakrifikatua dela, oso kirol konstantea, eta maila ez galtzeko urte osoan lan egin behar dela. Horregatik zenion, akaso, kirol honetan burugorria izatea garrantzitsua zela...**

Bai (kar, kar...) baina, badakizu, gustuko tokian aldaparik ez. Aste batean harriak ikutzen ez badituzu, nabaritu egiten da. Gero errekeratzen duzu, baina berehala galdu egiten da.

**Herri kirolek aurrera egin dezaten, ezinbestekoak dira Sakanako Harri jasotze Eskola bezalakoak?**

Bai. Sakanako eskola ez bagenu, ez zitzaidan burutik ere pasako harri jasotzean hastea. Bertan dugu, Irurtzunen, eta horrela erraza da herri kirol honetan hastea. Garrantzitsuena entrenatzaile bat izatea da. Harriak jasotzen erakutsiko dizun norbait ez baduzu, teknika erakutsiko dizuna, ezinezkoa litzateke.

**"MIKEL LASARTEK ESKOLAN EGITEN DUEN LANA OSO GARRANTZITSUA DA; GIRO POLITA DUGU"**

**Mikel Lasartek egiten duen lana oso garrantzitsua da.**

Lan bikaina egiten du. Sakanako Harri jasotze Eskolan urteekin gimnasio antzekoa muntatu dugu, beroketak eta luzaketak egiteko, eta gero entrenatzeko mota guztietako harriak daude. Giro oso polita dugu. Orain hiru gaude: Berriozarko Oskar Aguas, Bete-luko Josetxo Urrutia eta hirurok, eta beti pasatzen da norbait probatzera. Astean behin aritzen gara gutxienez. Ordu eta erdi inguru egoten gara, dugun animoaren arabera, beti ez baitzaude berdin. Hasieran pisu gutxi duen harri batekin beroketa egiten dugu, eta gero bakoitzak bere lana egiten du. Duzun proba edo txapelketen arabera prestatzen duzu entrenamendua.

**Neska-mutiko gazteak Sakanako Harri jasotze Eskolan hastera animatuko zenituzke?**

Jakina. Euredako harri txikiak ibiltzea ez da gehiegizkoa, eta sasoiaren egoteko modu bikaina da. **Iaz sanferminetan irabazi zuten Nafarroako Harri jasotze Txapelketa, 22 urte zenituela. 47 altxalditan, guztira 5.337,5 kilo jaso zenituen. Josetxo Urrutiari 800 kiloko alde atera zenion. Aurten nola ikusten dituzu Josetxo Urrutia eta Alvaro Zugarrondo zure arerioak?**

Uste dut hirurok lan polita egingo dugula. Norberak bere zenbakiak ditu, eta hortik pixka bat gorago edo beherago ibiliko gara. Proba estua izan daiteke; azkenean ez dakigu besteak nola dauden, eta txapelketa bukatu arte ez dakigu zer gertatuko den. Hiru harri erabiliko ditugu: 125 kiloko zilindroa, 113 kiloko kuboia eta 100 kiloko bola, eta bakoitzarekin 2 minutuko saioa egingo dugu.

**Zein gomendio eman dizkizu Mikel Lasartek?**

Lasai egoteko, eta aste honetan gehiegi ez nekatzeko. Irailean hasi nintzen txapelketa prestatzen, eta sentsazioak onak dira. **Nafarroako Txapelketa jokatuta eta gero, zein da hurrengo helburua?** Urrezko Harri jasotzaileen Txapelketan nabil. Binakako txapelketa da, eta nire bikoa Urdax Magunazelaia da. Lehendabiziko saioan ezin nintzen aritu, mina hartuta nengoelako, baina bigarren saioa nik eginen dut.

**Ea larunbatean, etxean, Nafarroako bigarren txapela lortzen duzun. Eskerrik asko! Ea larunbata aldatetarik gabe iristen den eta txapelketa jokatzeke aukera dugun. Eta txapela berritzea badugu, hobe!**

## PILOTA Udaberrira atzeratu dute EHko Kluben Artekoa

Euskal Herriko Kluben Arteko Pilota Txapelketako azken txanpa zen jokatzekoa egunotan. Irurtzun zen igande honetan jokatzekoa zen final handiko finalistetako bat, finalerdietan Oberena bidean utzi eta gero. Beste finalerdia urriaren 25ean zuten jokatzekoa Ultzamako Buruzgainek eta Lemoak, baina hartutako osasun neurriengatik herrialdeen arteko mugak itxi zirenez, antolakuntzak, Pilotabizi Pilotazaleen Elkartek, txapelketa 2021eko udaberrira atzeratzea erabaki du.

Klubek bizi duten egoera zaila dela jakitun, lau talde finalistei gehienez irabazi zezaketen diru kopuru handiena ematea erabaki du Pilotabizik. "Txapelketa-bukatzen denean diru kopuruak egunean jarriko ditugu, norberak azken sailkapenean lortutako postuaren arabera, baina orain Oberenari 1.200 euro emango dizkiogu, Buruzgaini 1.200 euro, Lemoari 1.200 euro eta Irurtzuni 2.500 euro" zehaztu du Pilotabizik.

## FUTBOLA Sakanako taldeak, momentuz, geldirik

Asteburu honetan Etxarri Aranatzek preferente mailari ekin behar zion, eta jubentzen 1. maila zen hastekoa; datorren asteburuan Lagun Arteak 1. maila autonomikoan debutatu beharra zuen eta hurrengoan Altsasu erregional mailan hastekoa zen, baina osasun neurriengatik Nafarroako futbol ligen hasiera atzeratu egin da.

## ARETO FUTBOLA Osasuna Magnak asteazkenean Barça hartuko du

Azken jardunaldian Osasuna Magna Xotak launa berdindu zuen Antequerarekin, 1 eta 4 irabazten joan eta gero. "Ez dugu ongi defendatu, bi puntu oparitu ditugu" adierazi zuen Imanol Arregik. Talde berdea 8. postuan dago eta asteazkenean, azaroak 11, liga ongi hasi ez duen eta 17. postuan dagoen Barça hartuko du Anaitasunan, 17:30ean.



Joanes Bakaikoak eta Erik Jakak joan den urtean Etxarri Aranatzeko jokatu zuten eta aurten ere elkarrekin aritzea tokatu zaie.

# Joanes Bakaikoak arantza atera nahi du

**PILOTA** Buruz Buruko final zortzirenetan Etxarri Aranazko aurrelariak Erik Jaka izango du aurkari igandean Eibarren). Joan den urteko Buruz Burukoan gipuzkoarra bere gainetik pasa zen, eta aurten etxarriarrak errebantxa borobildu nahi du

**Maidar Betelu Ganboa** ETXARRI A.

Asteartean aurkeztu zuten, Bilboko Arte Ederretako Museoa, aurtengo Buruz Buruko, orain arteko laburrena eta ezohikoena izango dena. 12 pilotari ariko dira, 6 enpresa bakoitzeko, tartean Joanes Bakaikoak etxarriarra (Baiko) eta Joseba Ezkurdia arbizuarra (Aspe). Baikoko pilotarien grebaren eta EPEL-ek eta pilotariak adostutako akordioaren ondorekin jokatzeko den lehen txapelketa izanen da, pandemiak guztiz baldintzatutakoa. Hain zuzen ere, osasun neurriak dirrela eta, txapelketa ez da Nafarroan jokatu. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan jokatu da, gehienez 400 ikuslerek, bertan neu-

rri murriztaile gehiago hartzen ez badira behintzat. Berrikuntzekin iritsi da txapelketa: bi urteren ondoren, botilleroen babesa izanen dute atzera ere pilotariak, soilik enpresa ezberdinen arteko partidak direnean, eta enpresetako teknikariak izango dira botilleroak. Eta, bestetik, pasaren marra zapitit sei eta erdira aurreratu dute, sake-errematearekin horrenbeste min ez egiteko.

**Jakak dio Bakaikoak ez duela "inoiz etsitzen"**

Asteburu honetan Buruz Buruko final zortzirenetan egongo dira jokoan, eta tartean, igandean Joanes Bakaikoak Erik Jaka

izanen du aurkari Eibarko Astelenan (17:00, ETB1). Zozketak atzera ere bi pilotariak parean jarri ditu, joan den urtean ere elkarrekin aritu baitziren. Oroitzapenak ez dira onak Joanes Bakaikoarendako, jaioterrian, Etxarri Aranatzeko jokatuak partidaren Erik Jaka bere gainetik pasa baitzen. Lizartzarrak 6 tantotan utzi zuen etxarriarra.

Baina ordutik gauza asko gertatu dira eta egoerari buelta eman nahi lioke Bakaikoak. Erik Jaka da faboritua, baina osasun arazoak izan eta gero frontoietara aurreko astean itzuli zen gipuzkoarra, eta oraindik ez omen dago %100ean. Aurkezpenen txapelketara zalantzekin iritsi

dela aitortu zuen Jakak. "Garaiz osatuko ote nintzen, zalantzak izan ditut. Aurreko astean itzuli nintzen kantxetara eta nahiko ondo sentitu nintzen; hobetzen ari naiz eta beharko dut, Joanes oso arerio gogorra baita, inoiz etsitzen ez duena. Gauzak oso ongi egin beharko ditut bera irabazteko" azaldu zuen.

Bakaikoak, bere aldetik, txapelketan aurrera egiteko dena emango du. Buruz Burukoak "oso gogotsu" dagoela aitortu du, eta urriaren 2an Etxarri Aranatzeko jokatu zuen atarikoan Arteaga II.ari 22 eta 14 irabazte-tik dator, konfiantza alde. Beraz, partida gogorra aurreikusten da igandean Astelenan.

**Ezkurdia datorren astean**

Asteburu honetan final zortzirenetan jokatu dira eta datorrenean final laurdenak. Orduan sartuko dira lehen zerrendaburuak: Iker Irribarria - Zubizarretaren edo Gomezen kontra-, Joseba Ezkurdia - Altuna III.aren edo Peña II.aren kontra-, Mikel Urrutikoetxea - Jakaren edo Bakaikoaren kontra- eta Danel Elezkano - Bengoetxea VI.aren edo Agirreren kontra-. Irribarria titulua defendatuko du, baina txapelketa "zaila" izango dela aitortu du, "badakigulako pilotarien artean zer nolako maila dagoen". Altuna da torneoko beste faboritua nagusietako bat; hori esan zuen Ezkurdiak. "Bere multzoan egotea egokitu zait eta badakit berak aurrera egin eta final laurdenetan arerio badut zaila izango dudala, baina dena ematera aterako gara" nabarmendu zuen. Altunaren iritziz, Irribarria da faboritua, baina "edozeinek eman dezake ezustea". Beraz, txapelketa ezohiko baina interesgarri baten atean gaude.

## La Covatillak Vuelta hankaz gora jarriko ote du?

**TXIRRINDULARITZA** Roglicek kate motzean lotu beharko ditu Carapaz, Carthy eta gainontzeko faboritoak

Hiru etapen faltan, eta atzo ezustekorik gertatu ezean, oraindik ez da Vuelta guztiz erabaki. Gaur eta bihar Salamancan jokatu diren bi etapen erabakiko dute igandeko Madrilgo pasean nor izanen den garaile, bereziki la-

runbatean Sequerosen hasi eta maila berezia duen La Covatilla gainean despedituko den etapa menditsuak. Primoz Roglic liderak (Jumbo) bertan espero ditu sailkapenean gertu dituen Richard Carapaz (Ineos), Hugh

Carty (Education First), Daniel Martin (Israel Start-Up) Enric Mas (Movistar Team) eta gainontzeko oilarren erasoak. Roglicek kate txikiarekin lotu beharko ditu, Tourrean bezalako azken orduko beste sorpresarik nahi ez badu behintzat.

Gorka Izagirrek (Astana) eta Imanol Erbitik (Movistar Team) euren liderrendako lan bikaina jarraitzen dute egiten. Movistar Team talderik onena da, eta saria lortzeko ahalegin batean jarraituko dute Arrietaren mutilek.



Imanol Erbitik. MOVISTAR TEAM



# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN  
BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA  
BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 /  
kultura@guaixe.eus

## OSTIRALA 6

**ALTSASU Gazte agendan:**  
**Bizkotxada.** 1,5 euro.  
18:00etan, Intxostiapunta gazte  
gunean.

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ**  
**Euskal presoak, Euskal Herrira.**  
20:00etan, plazan.

**ALTSASU Altsasukoak aske.**  
20:00etan, udaletxearen parean.

**OLAZTI Tdiferencia antzerki**  
**taldearen Perdiendo el juicio**  
**antzeulanaren emanaldia.**  
19:00etan, kultur etxean.

## LARUNBATA 7

**LAKUNTZA Hegaztiak behatzeko**  
**hastapenak. Hitzaldia eta**  
**gidatutako irteera praktikoa.**  
09:00etatik 13:00etara, plazan.

**ARBIZU Udazkena Sakanan.**  
**Borden ibilbidea.**  
Izena ematea: info@mirua.com /  
608 560 369.  
10:00etan plazan.

**ARBIZU Sarean euskaraz.**  
**Euskarazko kultura digitalaren**  
**jardunaldiak: Robotika**  
**ikastaroa.**

Zuzendaria: Joseba Senosiain.  
Doakoa.  
10:00etatik 13:00etara,  
liburutegian.

**ETXARRI ARANATZ Euskaraldia:**  
**Izena emateko eta txapak**  
**jasotzeko mahaiak.**  
12:00etatik 13:30era, plazan.

**ALTSASU Sarean euskaraz.**  
**Euskarazko kultura digitalaren**  
**jardunaldiak: 3D inprimigailuak**  
**ikastaroa.**

Zuzendaria: Joseba Senosiain.  
Doakoa.  
17:00etatik 20:00etara,  
Intxostiapunta gazte gunean.

**ETXARRI ARANATZ**  
**Circo Dabixiren Makina**  
**eta biok familiarterako**  
**ikuskitzuna.**  
17:30ean, kultur etxean.

**IRURTZUN Nafarroako Harri**  
**jasotze txapelketa eta**  
**Nafarroako txinga-erute**  
**txapelketa.**  
Ateak itxita jokatuko da.  
18:00etan, Biazpe pilotalekua.

**ALTSASU L'Om Improvis,**  
**Teatro del Temple, Teatro**  
**Corsario eta Micomicón**  
**konpainien Vidas enterradas**  
**ikuskitzuna.**  
19:30ean, lortia kultur gunean.

## IGANDEA 8

**ALTSASU Barranka**  
**Txirringularitza Taldeak**  
**Sorginetxeko trikuharrira 50**  
**kilometroko ibilbidea eginen du.**  
09:00etan, Zumalakarregi plazan.

**ALTSASU Udazkena Sakanan:**  
**Ipar Martxa hastapena:**  
**Dantzaleku-Sarabe-Dantzaleku.**  
Izena emateak:  
edukanatura@gmail.com /  
616 145 686 / 644 555 328.  
10:00etan, Dantzalekun.

**ETXARRI ARANATZ Euskaraldia:**  
**Izena emateko eta txapak**  
**jasotzeko mahaiak.**  
12:00etatik 14:00etara, plazan.

**ALTSASU Euskaraldia**  
**batzordearen informazio**  
**mahaia eta txapa banaketa.**  
13:00etatik 14:30era, Foru plazan.

**ALTSASU Iru teatro**  
**konpainiaren Alicia en el país**  
**de las maravillas familiarterako**  
**ikuskitzuna.**  
17:00etan, lortia kultur gunean.

**BAKAIKU Euskaraldia.**  
**Xabier Artiedaren Txor txor**  
**bakarrizketa umoretsua.**  
18:00etan, elizan.

**IRURTZUN Folk ametsetan:**  
**Gontzal Mendibil**  
**kantautorearen Biok emanaldia.**  
19:00etan, kultur etxean.



**ALTSASU Pepita eta Elisa Uriz**  
**Pi. Badostainetik Mendebaldeko**  
**Berlinerara. Uriz Pi ahizpen**  
**historia eta konpromisoa.**  
Azaroaren 3tik 12ra. Astelehenetik  
ostiralera 17:30etik 20:00etara,  
larunbatetan 18:30etik 21:00etara  
eta igandetan 19:00etatik  
21:00etara.

**ALTSASU Intxostiapuntaren**  
**urtemugaren argazki eta kartel**  
**erakusketa.**  
17:00etatik 21:00etara.  
Intxostiapunta gazte gunean.



**ETXARRI ARANATZ Bertso saioa:**  
**Andoni Egaña, Maialen Lujanio,**  
**Julio Soto, Nerea Elustondo eta**  
**Eneko Lazkoz.**  
19:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU Euskal presoak,**  
**Euskal Herrira elkarretaratzea.**  
20:00etan, plazan.

## ASTELEHENA 9

**ALTSASU Pentsio duinen aldeko**  
**kontzentrazioak.**  
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

## ASTEARTEA 10

**LAKUNTZA Hezkidetzan hezi**  
**berdintasunean bizi hitzaldi**  
**zikloa: Ipuin parekideak.**  
Emaleak: Ilazki Gainza eta Nerea  
Uria. Izena ematea:  
berdintasuna@sakana-mank.eus.  
17:00etatik 19:00etara, Sakanako  
Mankomunitateko egoitzan.

## ASTEAZKENA 11

**OLAZTI Osasuna eta memoria**  
**historikoaren inguruko topaketa:**  
**Ramon Bengaray Esther Aldaver**  
**idazlearekin eta Rojas Mikel**

## ZINEMA

### ALTSASU

#### IORTIA KULTUR GUNEA

**El amor necesita tiempo para**  
**matar Txuspo Poyoren filma**  
Ostirala 6: 20:00

**Rifkin's festival gaurkotasunezko**  
**filma**  
Igandea 8: 19:30

**Verano del 85 zineforum filma**  
**euskaraz**  
Igandea 8: 19:40

**El secreto: Atrevete a soñar**  
**gaurkotasunezko filma**  
Osteguna 12: 19:00

**Que suene la musica zineforum**  
**filma euskaraz**  
Osteguna 12: 19:00

**Huarte idazlearekin.**

Berataratzea baieztatu: 948 564 858.  
19:00etan, liburutegian.

## EGUNERO

**ETXARRI ARANATZ ETA ALTSASU**  
**Txikito gose eta egarri greba**  
**mugagabearen independentziaren**  
**eta sozialismoaren alde.**

Amnistiaren aldeko eta Errepresioaren  
aurkako Mugimenduak deitutako  
kontzentrazioak.  
19:15ean, Etxarri Aranazko plazan;  
20:00etan, Altsasuko udaletxe  
parean.



**D**  
**N**  
**DE KOVEN**  
**NAVARRA**  
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarra.com  
www.dekovenavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU  
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



ESKELA



**Jesusa De la Fuente Eiris** 

2020eko azaroaren 2an hil zen

Beti egongo zara gure bihotzetan

**Zure familia**  
Ziordia

ESKELA



**Jesusa De la Fuente Eiris**

Ahazten ez dena ez da inoiz hilko

**Iosu eta Nines, Jon eta Marta, Julen eta Iulene**  
Ziordia - Altsasu

ESKELA



**Jesusa De la Fuente Eiris**



**Iosu, Guaixe Fundazioaren banatzailearen ama**

ESKELA



**Txentxo Herrero Palomo**  
(2020ko urriaren 30ean hil zen, 62 urte zituela)

Gozamena izan da zu ezagutzea, zurekin lan egitea eta zure lagun izatea




**Ramos Industrial eta zure lankideak**

ESKELA

**Asintxo Razquin Garciandia**  
(2020ko urriaren 31n hil zen, 79 urte zituela)

Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik ez zaitugu inoiz ahaztuko

Familiak jasotako babesagatik eskerrak eman nahi ditu

**Zure familia**



**IZARRA**  
HEMEN, ZURE ONDOAN  
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

**ALTSASU**    **ETXARRI ARANATZ**  
Santa Cruz, 6    Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

URTEURRENA



**Mikel Arregi Marin** 

XXXXI. urteurrena  
Lakuntzan, 2020ko azaroaren 11n

Zure irrifarra, zure alaitasuna gure artean bizirik.

**Zure familia**

HERIOTZAK

- Txentxo Herrero Palomo, urriaren 30ean Altsasun
- Jesusa Gastearena Telletxea, urriaren 30ean Altsasun
- Asintxo Razkin Garciandia, urriaren 31n Lakuntzan
- Jesusa De la Fuente Eiris, azaroaren 2an Ziordian

IRAGARKI SAILKATUAK

**ERRENTAN HARTU**  
Sakanan, gutxienez 3 metroko altuera duen bajera baten bila gabiltza, errentan hartzeko, Lakuntza inguruan bada hobe. Amaia 616 554 180. Milesker.

**LAN ESKAINTZA**  
Etxarriko Danbolintxulo haur ludotekarako lanpostu sartzeko interesik baduzu, bidali zure kurrikuluma gure emailera: [danbolintxulohaurludoteka@gmail.com](mailto:danbolintxulohaurludoteka@gmail.com). Ezinbestekoa euskarako C1a izatea eta haur hezkuntzako goi zikloa baloratuko da.

**LEHIAKETA**  
Irurtzungo I. Argazkilehiaketa: Irurtzungo Udalak antolatuta, 16 urtetik gorako pertsona guztiek parte hartu dezakete. Aukeraturako argazkiak egutegia egiteko erabiliko dira. Bi gai: 1.) Paisaiak eta ondarea 2.) Jai eta kultur ekitaldiak Irurtzunen. Lanak aurrezteko eguna azaroaren 16an izango da argazki irurtzun@gmail.com helbidera edo USB batean kultur etxean entregatuta. Informazio osoa: [www.irurtzun.eus/webgunean](http://www.irurtzun.eus/webgunean).

**OHARRAK**  
**Odol emateak Etxarri Aranatz:** Azaroaren 11n, 17:00etatik 20:30ra. [www.adona.eus](http://www.adona.eus).  
**Business Intelligence: Power BI trensaren aukerak ezagutzeko saioa:** Azaroaren 11an, asteazkenean, goizeko 10:00etatik 13:00etara Altsasuko Iortia Kultur Gunean. Izena emateko galdetegia bete hurrengo helbidean: <https://www.clubdemarketing.org/inscripcion.aspx?dato=332020141>  
[iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)  
[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)

JAIOTZAK

- Xabat Jungitu Martin, urriaren 24an Iturmendin
- Ekai Tajuelo Santamaria, urriaren 25ean Altsasun
- Ioar Lopez Gorospe, urriaren 28an Olaztin
- Amira Arroudj, urriaren 30ean Irurtzunen

**IRACHE**  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

948 19 70 70  
@Gruporache  
Gruporache  
[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)

“Betidanik”





Feten Feten taldea. DAVID PALACIN

# Musika tradizionaletik haratago

Irurtzango Folk Ametsetan zikloak hiru hamarkada beteko ditu laster. Etzi, igandea, 19:00etan, hasiko da aurtengo edizioa Gontzal Mendibilen kontzertuarekin. Zuzeneko musikaz "beste modu batean" gozatzeko aukera ematen du zikloak

## Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN

Musika lasai entzuteko lekua eskaintzen du Folk Ametsetan Irurtzango zikloak. "Normalean antzokietan antzerkiak eta ikuskizunak egiten dira, baina musikaz gozatzeko aukera gutxi egoten da". Horregatik, duela ia 30 urte Baztango, Lekunberriko eta Irurtzango udalek musika ziklo bat jarri zuten martxan, udazkenean ospatzen zena. "Mankomunitateko Programa dirulaguntza sortu zuten orduan, eta horri esker antolatzen genuen zikloa", azaldu du Patxi Mikeo Irurtzango kirol eta kultur teknikariak. Arrakasta ikusita San Adriango eta Castejongo udalek bat egin zuten egitasmoarekin. Baina duela hiru urte inguru dirulaguntza desagertu zen, eta gaur egun Baztanek eta Irurtzune baino ez dute Folk Ametsetan zikloa antolatzen: "Beste dirulaguntzei esker aurrera jarraitzen dugu". Aurtengo egoera berezia den arren zikloa antolatzea erabaki dute.

Folk Ametsetan zikloaren helburua, beraz, giro lasai, eroso

eta zuzeneko batean musikaz gozatzeko da. Horretarako, urtero tradiziozko musikaren abeslari eta musika talde ospetsuak programatzen dituzte; Mikel Markez, Olatz Zugasti, Ane Etxegoien... Aurtengo zikloan goi mailako bi proposamen antolatu dituzte: etzi, azaroak 8, Gontzal Mendibil kantautoreak *Biok* diskoaren emanaldia egingen du, eta azaroaren 15ean Feten Feten Gaztelako talde ezaguna izanen da Irurtzango kultur etxean. Bi emanaldiak 19:00etan izanen dira. Nafarroako Gobernuaren segurtasun neurriak kontuan hartuz, 50 bat pertsona sar daitezke kultur etxean, beraz, Mikeok behintzat sarrera aurretik erreserbatzea gomendatzen du: "Azken ordukoak gara, baina gerta daiteke igandean bertan sarerrarik ez egotea".

## Folk musika berritzen

Maskararen atzean dauden adierazpenak interpretatzen ikasten ari da Jorge Arribas Feten Feten

taldeko akordeoilaria. Pandemiagatik kontzertu asko bertan behera gelditu bazaizkie ere, lanean ari dira, eta Baztango eta Irurtzango Folk Ametsetan zikloan egonen da taldea. Diego Galazek eta Jorge Arribasek sortu zuten taldea, Las Musgaña gaztelako tradizio musikako taldean egon ondoren. Euskal Herrian Oskorri badago, Gaztelan La Musgaña dago: "Guretako talde erreferente bat zen". Gaztelako tradizio abestien bertsioak egiten dituzte taldeak, eta Galazek eta Arribasek pauso bat gehiago eman nahi zuten: "Gure abestiak konposatzen hasi ginen, betiere oinarri tradizional batekin". 2011. urtean lehenengo diskoa kaleratu zuten.

Doinu tradizionaletan inspiratzen dira. "Dantza doinuak izaten dira. Nekazariak egun osoan lanean pasa ondoren, plazan biltzen ziren eta dantza egiten zuten eta lanaren zailtasunaz ahaztu egiten ziren. Guk biok hori ezagutu dugu, eta guretako inspirazio bat da". Haien abestiak

instrumentalak badira ere, "abestekoak" ematen dutela azaldu du Arribasek. "Tradiziozko edan dugu eta XXI. mendetik pasa". Baina folk oinarria oso argia da.

Irurtzunen kontzertua eskaini aurretik, Madrilen egongo dira. Fito&Fitipaldis taldearen teloneoak izatetik, herrietako kultur etxeetan jotzera. "Guretako oso garrantzitsua da. Distantzia motzak ere gustatzen zaizkigu. Gure proiektua hortik sortu zen, herriko plaza batean jotzeko abestiak dira". Kontzertu hauek ematen duten gertutasuna gustatzen zaie: "Jendearen aurpegietan gozatzen ari direla ikustea". Maskarekin orain gutxiago ikusten dutela esan du, "baina lortzen badugu maskara jarrita dutela ahaztea, merezi du". Konfinamenduaren ondoren hainbat kontzertu eman

dituzte, leku askotan, eta "guztietan neurri guztiak bete dira". COVID-19 birusa hartzea "ezinezkoa" dela azaldu du.

Feten Feten taldearen bereizgarri nabarmenena instrumentuak dira. Bikote bat da eta biolina eta akordeoia instrumentu garrantzitsuenak dira, baina agertokian hamaika gehiago egon daitezke: zerrotea, zanpoina Erdi Aroko instrumentua, zenbait txirula mota desberdin... "Nahiko sorpresa izaten da bi egotea eta bat-batean beste instrumentu batekin hastea. Erritmo eta eragin desberdinak entzun daitezke gure kontzertuetan. Soinu paisaia desberdinak daude". Ikuskizunak eta abestiak asko zaintzen dituztela azaldu du musikariak. "Dena arrazoi batengatik egiten da".



BAZTERRETIK

IUNE TRECET OBESO ©

## Diseinu grafikorako tresna askeak I

Diseinuan badago Adobez kanpoko mundua. Tresna askeen artean diseinurako programa aurreratuak daude, erabilerrazak direnak, doan eskuratu ditzakezunak eta gainera euskaraz.

Lehenik eta behin, ezagunena, **GIMP** da. Pintzela ahoan duen Wilber azeritxoa logo duen programa hau, argazkiak moldatzeko erabiltzen da. Mugikorrarekin edo argazki kamerarekin egindako argazki horiek edertzeko aukera izango duzu, koloreak indartu, argitu, nahi duzun tamainan jarri edota begi zuloak argitzeko erabili daiteke, beste aukera askoren artean. Nola erabiltzen den ikasteko modurik hobereana, argazki bat GIMPen ireki, eta dituen tresna guztiekin saltseatzen joatea da. Gauza errealistak egin ditzakezu, baina baita argazkiari ikutu arraroak eman ere. GIMPek pixelez sortutako irudiak erabiltzen ditu, kolore zehatz bat duen karratuarekin (pixelak) sortutako sareta bat da pantailan ikusten dugun argazkia, geroz eta pixel gehiago izan, geroz eta informazio gehiago edukiko dugu eta irudiaren kalitatea handiagoa izango da. Baina ez kezkatu, gure gailuek,

normalean, behar ditugunak baino pixel gehiago edukitzen dituzte eta. Programa, *gimp.org* webgunean duzu eskuragarri.

Nire ordenagailuan ezinbestekoa dena, **Inkscape** da. Grafiko bektorialekin lan egiteko programa da. GIMPek pixelak erabiltzen dituen bitartean, Inkscapek puntuak eta puntuak lotzeko bektoreak erabiltzen ditu, eta horrela, ez dugu izango irudiak eskalatze inongo mugarik. Puntuen eta bektoreen gaia arrotza egin daiteke, baina azken finean arkatz batez egin dezakegun marra hori irudikatzea da errazena. Inkscape bidez, edozein tamainatoko kartelak egin ditzakegu, aplikazio desberdinak izan ditzaken enpresa bateko logoa edo GUAIXEKO astekarirako portada polit bat. Programak nola funtzionatzen duen ikasteko modu polit bat tutorial hau jarraitzea da; hauxe da nire proposamena: <https://labur.eus/InkscapeTutoriala>. Aukera pila bat dituen programa bat da, eta probatzea gomendatzen dizuet. Inkscape deskargatzeko aukera, *inkscape.org*-en aurkituko duzue.

Datorren kolaborazioan, diseinurako tresna askeen gomendioekin jarraituko dut.





Elias Taño komikirako egindako ilustrazioa. UTZITAKOA

# Edozein izan daiteke Momotxorro

Elias Taño artistak Altsasu Auziaren fanzinea argitaratu du: 'Dios, Patria, Fueros y Rey Altsasu'. Auziagatik espetxeratutako gazteen elkartasunez Burunda frontoiko murala egin zuen, eta estilo berdineko marrazkiek osatzen dute komikia

Altsasuko auziaren inguruko "zerbait" egitearen ideiarekin nahiko denbora zeraman Elias Taño artistak. "Bilboko lagun batzuekin sortu zitzaidan komiki bat egitearen ideia. Gallina Vascako lagunekin hitz egitean bururatu zitzaidan gure ikuspuntutik kontatu beharrean, hori nahiko ongi azalduta dagoela, haien ikuspuntutik egitea". Probak oinarri hartuta gaia ironizatu du Taño: "Nola egin zuten

ikerketa, nortzuk salatu zituzten eta zergatik...". Koxka tabernaren aurrean izandako iskanbilaren eta ondorengoaren kontaktuz eskaintzen du *Dios, Patria, Fueros y Rey Altsasu* komikiak. Dagoeneko artistaren sare sozialeretan erosi daiteke, baina urtaririlean, egoerak hobera egiten badu, Nafarroan aurkezpenak egitea aurreikusi du. Gainera, euskarazko bertsoia egiten dela ere esan du.

"Istorioren honen paradigma da talde armatuaren faktorea dagoeneko ez dagoela politikaren barruan. Orduan, kontakizun hau egiteko nahita nahi ez kriminalizatu behar izan dute. Euskal Herrian betidanik gertatu dena". Altsasu Auziarekin Euskal Herriatik kanpo atzera begiratu dutela azaldu Taño: "Hori orain gertatu bada, zer ez da gertatu Euskal Herrian 30 urte hauetan? Intxaurrendoko kuar-

tela, GAL, erailketak, torturak...". Altsasuko denboran gertuago dagoenez, "eta talde armatua dagoeneko existitzen ez denez", istorioak Ebroren muga zeharkatu duela esan du artistak.

## Paralelismoak

Momotxorroak dira komikiaren protagonistak, Guardia Zibil, epaile eta auziaren inplikaturak egon diren beste hainbat pertsonaiekin batera. "Ez pertsonalizatzeko saiakera bat egin dut. Edozeini gerta dakioken gauza bat dela erakusteko edo, alderantziz, guztiak momotxorroak izan gaitezkeela adierazteko". Altsasuko tradizioa jo zuen artistak, eta inauterietako pertsonaiak arlo guztietan interesagarriak zirela azaldu du: "Estetikoki, musika aldetik, energia aldetik... momotxorroen irteera hori izugarria da". Pertsonaia Euskal Herriko "kosmobisioa" kontatzeko egokia da. Munstroekiko zentzugabekeriako beldur horrekin paralelismoa egin nahi izan du ere momotxorroak erabiltzean: "Euskal Herriko datorren edozein aldarrikapen sozial eta politikoei beldurra izatea, herri tradizioaren munstroei zaien beldurraren antzekoa da".

Momotxorroak edozein izan daitezke, baina kontakizun honen beste pertsonaiek izen propioak dituzte. Ironiaren bidez, modu esplizituan, auziaren nondik norakoak azaldu ditu. Kaleak arte politika egiteko leku hobeenak direla azaldu du: "Ez dut uste arazorik sortuko duenik. Kanean dagoena publikoa da, jende guztiak ikus dezake eta jende guztiak kritikatu dezake. Espazio publikoa da. Baina komiki bat hedatzeko zailagoa da". Esku okerretan erortzen ez bada. Kasu horretan ere adierazpen askatasunaren barruan sartzen dela azaldu du Taño: "Badakigu botere judiziala ultra kontserbadoria dela, baina izan ditudan Voxen salaketa guztiak artxibatu dituzte".

## Estilo berezia

2018ko Altsasuko festetan Burunda frontoiko fatxadan kolore biziko murala margotu zuen, hainbat pertsonekin elkarlanean. Artistak esan duenez, ez da herrira egin duen bisita bakarra. Barrura sartu zaio Altsasu eta bertako jendea: "Altsasu Gurasoak taldeko kideak ezagutzen dituzuenen konturatu zara

nola manipulatu duten guztia. Gainera, herri osoa kriminalizatzeko saiakera bat izan da. Oso larria iruditzen zait". Murala elkartasunaren irudi bihurtu bazen, komikia Altsasuko jendeari omenaldi bat izatea nahi du artistak. "Bertan asko ikasi dut, eta jendeak erakutsi dit guzti honi aurpegia jartzen. Ebrotik behera esan ziguten momotxorro etarrak izan zirela guardia zibil batzuk jo zituztenak, baina sentsibilizazio pixka bat izanda konturatu zara zer gertatu zen".

"Altsasu liburua ireki nuenean eta muralaren argazki bat ikusi nuenean pentsatu nuen: dagoeneko ez da zurea, herriarena da". Altsasuko muralaren irudiak Tañoaren bereizgarriak diren figurak agertzen dira. Baita komikian ere. Artistak azaldu duenez, "bereak" dira, baina bere estilo hori lortzeko hainbat artistetan eta mugimendutan oinarritzen da: Mainstream kulturaren sektore pop-enetatik Latinoamerikako muralismora, *underground*-eko komikietatik pasata. Bere estilo gogokoena Txileko Ramona Parra Brigada dela esan du. Bai bisualki bai muralak egiteko erabiltzen duten teknika aldetik ere. "Nik bezala lan egiten dute: artistak marrazkiak egiten ditu, eta langile eta nekazari bakoitzak kolore batekin zati bat margotzen zuen. Amaitzeko artistak beltzarekin lerroak erreparatzen zituen. Oso azkar egin behar zuten, haien metodologiagatik eta diktaduran egiten zuten bizitza arriskuan jartzen zutelako". Altsasuko murala teknika hau erabiliz sortu zuten.

Komikia "gauza oso umila" da. Konfinamendua gurasoekin Tenerifen pasa zuen Taño, eta "prekarietatearekin borrokatetik gelditu ahal izan dudana momentu bakarra" baliatu zuen. Kanarietako patata beltzek finantzatu dute artelana: "Lagun batek kasualitatez saldu behar zuten, eta proiektua aurrera eramateko aukera bezala eskaini zidan". Bertako nekazaritzatik sortutako proiektua bada, beraz. Momentuz, 200 ale kaleratu ditu eta, espero ez bazuen ere, lehenengo egunetan "asko" saldu zituen. Estatu osotik heltzen zaizkio eskaerak. "Oso ongi doa". Komikia lortzeko Tañoarekin harremanetan jarri behar da bere sare sozialen bidez.



## 11 GALDERA



Intxostiapunta gazte guneko begiraleak.

# "Hemen barruan dagoena zerbait bizia da"

Altsasuko Intxostiapunta gazte gunek 10 urte bete ditu. Iñaki Lopez Aguado eta Alazne Ginea Jimenez gazte gunearen begiraleak dira. Gazteen topagunea eta kofiantzazko toki bat dela esan dute. Urtemugaren harira aldizkari bat kaleratu dute

## 1 Noiztik zarete gazte guneko begiraleak?

**IÑAKI:** 2010ean hasi nintzen hemen lanean. Jaiozenezan hemen nengo. Berezia da urtemuga hau bizitzen egotea.

**ALAZNE:** Zehatz mehatz ez dakit noiz sartu nintzen. Hirugarren begirale bezala sartu nintzen hasieran, gero opor batzuk egin nituen... baina duela urte dezente.

## 2 Zer da Intxostiapunta?

**I.** Lokal bat da, baina hemen barruan dagoena zerbait bizia

da. Gazteek osatzen duten leku bat da. Topaketa gune bat...

**A.** Bi solairu ditu eta barruan dauden espazioak dira kuadrillarekin egoteko gelak, ikasketa gela bat, zibergela bat, mahai jolasen txoko bat, entsegu gelak, dantza sustatzeko espazioak, ping-ponga, futbolina...

## 3 Zer nolako gazteak etortzen dira?

**I.** Altsasuko edozein gazte etor daiteke. Normalean kuadrillak finkoak dira. 12 urtetik 18 urte

bitartekoak dira gehienak. Kuadrilla helduren bat edo beste badago ere.

**A.** Leku anitza da bai kultura aldetik bai hizkuntza aldetik. Orduan, kuadrilla edo lagun talde bakoitza bere espazio propioa bilatzen saiatzen da. Beraien artean erlazionatzen dira ere, baina bakoitzak bere lekua edo txokoa izateko joera dauka.

## 4 Zein da zuen egitekoa?

**I.** Beraiek laguntzea. Beraien prozesuetan laguntzea,

hor egotea eta, noski, lokalaren zaintza egitea. Pandemia egoera honetan guk egiten ditugu txandak, eta guztia kontrolatu behar dugu. Baina bereziki beraiekin momentuak konpartitzea eta beraiekin egotea. Baita eskaintzak egitea ere.

**A.** Haiek badakite ez gabela beraien lagunak, baina ez gaituzte irakasle bezala ikusten. Orduan, badituzte hainbat kezka eta arazo lagunei kontatzea zaila egiten zaiena epaituak sentitu ahal direlako eta irakasle edo gurasoei kontatzea ezinezkoa delako, eta guregana jotzen dute. Beraientzat konfiantzazko espazio bat gara.

## 5 Gazte gunetik kanpo dauden kuadrilla, piperu, lokal eta taldeekin harremana duzue?

**A.** Bai, kolektiboekin harremana dugu, eta askorekin lan egiten dugu: Inauteri Batzordea, Gaztetxea, Altsasuko Peñak...

## 6 Erabiltzaileek zer pertzepzio dute?

**I.** Agian errepikakorra da, baina haien kezkek, zalantzak, izateko modua eta abar azaltzeko eta ez epaituak sentitzeko leku bat dela sentitzen dute. Esan behar dugu udalaren zerbitzu bat dela eta instituzio publiko baten menpe gaudenez, zenbait zailtasun sortzen dira gauzak antolatzeko orduan. Gauzak ez doaz hain azkar.

## 7 Belaunaldi aldaketak ikusi dituzue.

**A.** Zerbitzuak 25 urte betetzen ditu, eta horrek esan nahi du gazteak belaunaldiz belaunaldi pasatuz joan direla eta jarraipena eman diotela. DBHra sartzen direnean kuadrilla handiak etor-

tzen hasten dira eta 3. edo 4. mailan daudenean desagertzen dira. Gero batzuk bueltatzen dira. Baina baditugu 20 urte baino gehiagoko kuadrillak ere, asteburutan hona etortzen direnak. Herrian, herritik eta herriarentzat ari gara, eta gazteriarik gabe ez zen existituko.

## 8 Aldizkari bat aurkeztu duzue. Papera ez da gazteendako zaharra?

**A.** Gazteei papera arrotza egiten zaie, baina proiektu hau aurrera eramateko arrazoia izan da ere: eskuetan izan duten ia aldizkari bakarra da. Dena online egiten dute. Aldizkaria digitalizatuta dago ere.

## 9 Zer eduki ditu aldizkariak?

**I.** Gazteria zerbitzuaren historia guztia hartzen du, bere jaiotzetik gaur egun arte. Eskaintzen dituen zerbitzu guztiak, programa guztiak isladatzen saiatu gara, behintzat nabarmenenak, asko direlako... Gure historia dago.

## 10 Zuek egin duzue edo elkarlana izan da?

Elkarlanik gabe ezingo genuke ezer egin. Lan taldean lan egitea ezinbestekoa da.

## 11 Nola banatuko da?

**A.** 400 ale kaleratu ditugu eta banaketa zerrenda bat daukagu: zerbitzutik pasatako gazte, musika talde, zinegotzi ohi, begiraleak.... Jende pila bat dago. Digitala sare sozialetan eta Altsasuko udaleko webgunean jarriko dugu ere.

**I.** Gure lana kalera ateratzeko modu bat da, eta Nafarroako gazte txokoetara bidaliko ditugu ere.

# EUSKARALDIA

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN

*Azaroaren 20tik abenduaren 4ra*



**EMAN IZENA!**

[www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus)



Gobierno  
de Navarra



Nafarroako  
Gobernua